Guk esan dugu herritarrei emango geniola hitza, eta hori da gu, gaur egun Udal Gobernuan egotearena.

-Bonu txartelak: egia da oraindik ez ditugu martxan jarri, abenduan jarri behar genituen, baina tabernak itxita zeuden eta ez zitzaigun justua iruditu eta horregatik atzeratu dugu urtarrilean, eta negozio denak aukera edukitzea izatea nahi dugu.

-Aurrekontuetan proposamenik ez egitearenak adierazten du oposizioak egiteko modua, ez eraikitzailea, ez proposatzailea, eta ez dut besterik erantzuteko zuk aipatutako guztiari.”

Alkatearen hitzak amaitu ondoren bozketara jo dute:

BOZKETAREN EMAITZA: Aldeko bozkak 5 (Eh Bildu), kontrako bozkak 4 (EAJ/PNV) ez da abstentziorik izan.

LAUGARREN GAIA

2021. EKITALDIKO IRURAKO UDALEKO LANGILE PLANTILLA ETA LANPOSTUAREN ZERRENDAREN HASIERAKO ONARPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Idazkariak hartu du hitza eta adierazi du 2021. urterako aldaketa bakarra dagoela. Plantillan dagoen langile laborala, garbitzaile postuan jubilatu egingo dela, beraz, postua amortizatu eta funtzionario postua sortuko da, horrela bi garbitzaileak funtzionarioak izango dira.

Orain jendaurrean jarriko da eta alegaziorik ez badago behin betikoz onartua izango da.

Bozketa egin ondoren, aho batez onartua gelditu da. Taulak birpasatu

PLANTILA ORGANIKOA

A) KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

| LANGILE KOPURUA | LANPOSTUA | TALDEA | EGOERA | OHARRAK |
|---|--------------------------|--------|--------|---------|
| a) Gaikuntza estataleko funtzionarioen | | | | |
| Idazkari-kontuhartzaile azpieskala | | | | |
| 1 | Idazkari-kontuhartzailea | A1/A2 | J | |
| b) Administrazio orokorreko eskala | | | | |
| - Administrazioen azpieskala. | | | | |
| 3 | Administraria | C1 | 1J/2H | |
| c) Administrazio bereziko eskala | | | | |
| - Azpieskala teknikoa | | | | |
| 1 | Kultur arduraduna | A2 | J | |
| 1 | Arkitekto-teknikoa | A2 | H | %60D |
| 1 | Euskara teknikaria | A2 | J | %40D |
| 1 | Gizarte langilea | A2 | J | %85D |
| 1 | Eragile Sozio-Kulturala | C1 | J | |
| 1 | Kultura laguntzailea | C2 | H | |
| - Zerbitzu berezien azpieskala | | | | |
| 1 | Zerbitzuetako arduraduna | | J | |
| | | C | | |
| | | 1 | | |
| 3 | Ofiziala | | 1J/2H | |
| | | C | | |
| | | 2 | | |
| 2 | Eraikin Garbitzalea | LT | 2H | |

B) PERTSONAL LABORALA LAN- KONTRATUKO LANGILEAK

Ez dago.

C) AIDIBATERAKO LANGILEENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

Ez dago

2020 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDETAKO LANPOSTUAK

| Zk: | Izena | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Taldea | Eskala | Azpi eskala | Eskatu t. titulazio | Hizk. eskak. | Derrig. data | Ordai. maila | Lanp. Osaki | Osakin berezia | Jarduna | baldintza Espezif. |
|------------|----------------------------------|----------------------|-----------------------|---------------|---------------|--------------------|----------------------------|---------------------|---------------------|---------------------|--------------------|-----------------------|----------------|---------------------------|
| 1 | Idazkari kontuhartzailea | S | K | A1/A2 | GN | IK | 1/2 | 4 | 01-12-31 | 23 | 26 | 21.422,24 | %100 | B.D.%16 |
| 2 | Idazkarien Administrazioa | S | K | C1 | AO | AA | 3 | 3 | 93-12-31 | 13 | 16 | 17.226,16 | %100 | |
| 3 | Kontuhartzailaren Administrazioa | S | K | C1 | AO | AA | 3 | 3 | 06-01-01 | 15 | 18 | 19.018,72 | %100 | |
| 4 | Jende aurreko Administrazioa | S | K | C1 | AO | AA | 3 | 3 | 15-07-15 | 13 | 16 | 17.226,16 | %100 | |
| 5 | Zerbitz. arduraduna | S | K | C1 | AB | ZB | 3 | 2 | 06-01-01 | 15 | 18 | 19.018,72 | 100% | B.D.%15 |
| 6 | Ofizial Koordinatzaile | S | K | C2 | AB | ZB | 4.1 | 2 | 00-05-31 | 12 | 16 | 18.379,48 | %100 | B |
| 7 | Ofiziala (2) | ES | K | C2 | AB | ZB | 4.1 | 2 | 20-01-01 | 10 | 12 | 15.972,46 | %100 | B |
| 8 | Kultur arduraduna. | S | K | A2 | AB | TB | 2.2 | 4 T.G. | - | 17 | 20 | 17.886,68 | %100 | |

2020 URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI GORDETAKO LANPOSTUAK

| Zk: | Izena | Lanpostu mota | Hornitzeko era | Taldea | Eskala | Azpi eskala | Eskatu t. titulazio | Hizk. eskala | Derrig. data | Ordai. maila | Lanp. Osaki | Osakin berezia | Jarduna | baldintza Espezif. |
|------------|---------------------------------|----------------------|-----------------------|---------------|---------------|--------------------|----------------------------|---------------------|---------------------|---------------------|--------------------|-----------------------|----------------|---------------------------|
| 9 | Euskara teknikaria | S | K | 2 | AB | TB | 2.3 | 4T.G. | - | 15 | 19 | 15.388,10 | 40% | |
| 10 | Kultur Laguntzailea | S | K | 2 | AB | TB | 4.1 | 3 | 07-12-31 | 10 | 12 | 14.739,48 | %100 | |
| 11 | Eragile Sozio-Kulturala | S | K | 1 | AB | TB | 3.1 | 3 | 15-07-01 | 13 | 16 | 16.151,88 | %100 | |
| 12 | Arkitekto teknikoa | S | K | A2 | AB | TB | 2.1 | 3 | 97-11-26 | 19 | 22 | 20.685,47 | %60 | |
| 13 | Gizarte langilea | S | K | A2 | AB | TE | 2.4 | 3 | 04-01-01 | 16 | 20 | 16.707,10 | %85 | |
| 14 | Eraikin Garbitzeko Langilea (2) | ES | K | E | AB | ZB | 5 | 1 | 21-01-01 | 7,5 | 9 | 13.837,18 | %100 | |

LAN HITZARMENA DUTEN LANGILEEI GORDETAKO LANPOSTUAK

| | | | | | | | | | | | | | | |
|-----------------|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|
| Ez dago. | | | | | | | | | | | | | | |
|-----------------|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|--|

| <u>T i p o d e P u e s t o</u> | C L A V E S | <u>L a n p o s t u m o t a</u> | K O D E A K |
|--|-------------|---|-------------|
| S - Singularizado | | S - Singularizatua | |
| N - No singularizado | | ES - Ez Singularizatua | |
| <u>P r o v i s i ó n</u> | | <u>H o r n i k e t a e r a</u> | |
| C - Concurso | | K - Lehiaketa | |
| L - Libre designación | | IL - Izendatze Librea | |
| <u>E s c a l a</u> | | <u>E s k a l a</u> | |
| HN - Habilitación Nacional | | GN - Gaikuntza Nazionala | |
| AG - Administración General | | AO - Administrazio Orokorra | |
| AE - Administración Especial | | AB - Administrazio Berezia | |
| <u>S u b e s c a l a</u> | | <u>A z p i e s k a l a</u> | |
| AA - Administrativo Administración General | | AA - Administrazio Orokorreko Administraria | |
| AX - Auxiliar Administrativo de Administración General | | AL - Administrazio Orokorreko Laguntzailea | |
| SI - Secretaría - Intervención | | IK - Idazkaritza - Kontuhartzaitletza | |
| SE - Servicios Especiales | | ZB - Zerbitzu Bereziak | |
| TE - Técnico Administración Especial | | TB - Administrazio Bereziko Teknikaria | |
| <u>T i t u l a c i ó n E x i g i d a</u> | | <u>E s k a t u t a k o t i t u l a z i o a</u> | |
| 1 - Licenciatura, Ingeniería, Arquitectura o Grado. | | 1 - Lizentziatura, Ingenieritza, Arkitektura edo Gradua. | |
| 2 - Diplomatura Universitaria, Arquitectura Técnica, Ing. Técnica o equiv. | | 2- Unibertsitateko Diplomatura, Arkitektura Teknikoa ,Ing. Teknikoa edo baliokidea. | |
| 2.1.- Arquitectura Técnica o equivalente. | | 2.1-Arkitektuta Teknikoa edo baliokidea. | |
| 2.2.- Diplomatura Universitaria o equivalente. | | 2.2.-Unibertsitateko Diplomatura edo baliokidea. | |
| 2.3.- Diplomatura en Filología Vasca o equivalente. | | 2.3-Euskal Filologiaren Diplomatura edo baliokidea. | |
| 2.4.- Diplomatura en Trabajo Social o equivalente. | | 2.4.- Gizarte Lanean Diplomatura edo baliokidea. | |
| 3.- Bachiller, Formación Profesional de 2º grado o equivalente. | | 3.- Batxilergoa,„Lan Bide Heziketa II. maila edo baliokidea | |
| 3.1.- Animador Socio Cultural Grado Superior o equivalente. | | 3.1.- Giza Kultur Supertzailea Goi Mailakoa edo baliokidea. | |
| 4.- Graduado en ESO ,Formación Profesional de 1º Grado o equivalente. | | 4-Eskola Graduatua, Lanbide Heziketa 1. maila edo baliokidea. | |
| 4.1.- Formación Profesional de 1º Grado o equivalente, | | 4.1.- Lanbide Heziketa 1. Maila edo baliokidea. | |
| 5 - Certificado de escolaridad o equivalente. | | 5- Eskola Agiria edo baliokidea. | |
| 7 - Según catálogo Puesto de Trabajo | | 6.- Lan Postuen Katalogoaren arabera. | |

BOSGARREN GAIA

UDAL ERAIKINEN ERABILERARI BURUZ PARTE HARTZE PROZESUEN EMAITZAK JAKINARAZTEA ETA HALA BADAGOKIO ERABAKIAK ONARTZEA.

Alkateak hartu du hitza eta Elhuyarrek lagundutako partehartze prozesuaren nondik norakoak azaldu ditu, hasiera batean Jarraipen Batzordea sortu eta prozesu guztiaren bermea izango zela, udal gobernu, oposizio eta herritarrez osatua.

Partehartze prozesu horretan Udaletxea, zahar etxeko taberna eta haur eskolako 1go solairua izango ziren aztertuko ziren guneak.

Prozesu horretatik atera ziren ondorio nagusiak honako hauek izan ziren:

-Udaletxea berritu behar zela eta aurkeztutako en artean 3.aukera zela aukeratua.

-Herriko zahar-etxea berrireki, baina taberna/jatetxe izateaz gain, ekintza kulturalak eskaini beharko lituzkeen gunea izan beharko litzatekeela.

-Haur-eskolako 1go solairua, gela anitzez osatutako espazio bat; herriko elkarteek erabili ahal izango dutena.

Aldi berean gaineratu du, dirulaguntza lerro ezberdinak daudela eta Irurak Erein dirulaguntzak izaten duela dirulaguntza lerro garrantzitsu bezala, baina ez dela ahaztu behar efizientzia energetikoa dela eta ez dela EVE erakundea ere hor dagoela eta nola ez irisgarritasuna.

Eta berriz adierazi nahi dut, udaletxe berria egiteko 3.aukera izan dela onartua, jatorrian aukeratua zegoena baina 200.000€ merkeagoa, eta herri honetan diru hori, diru asko da.

Eta ikusi genuen aukera horrekin aurrera egin behar genuela, hori zelako Udalak hartu zuen konpromezua.

Eta itzulera saioa iritsi zen, hau da, herritarrei jakinaraztea prozesuak emandako ondorioak.

Orain, jarraipen batzordea mantentzeko asmoa daukagu, eta bertan dauden herritarrak ematen ditugun pausuen jakinaren gainean egon daitezken, eta dena txostenean jasoa dago.

Gaineratu, partaidetza prozesu hau egiteko dirulaguntza eskaera bat egin genuen eta onartu ziguten; kostu osoaren zati handi bat izan da.

Oso gustura gaude egindako prozesu honekin, eta norabidea garbi daukagula, hau da, guk eman dugu lehengo pausu bat; nahiz eta beste partehartze prozesu batzuk egon izan diren beste oinarri batzuekin. Oraingoa, kanpoko enpresa batekin eta profesionalekin egindako, eta uste dugu hartu dugun bidea errepikatzea izango dela.

Txostenaren emaitzak bozkatuko dituzte.

EAJko zinegotziak adierazten du Abstenitu egingo direla ez dutelako prozesuan partehartu.

BOZKETAK: udalbatzak onartu du, 5 boto alde (EH Bildu) eta lau abstentzio (EAJ/PNV).

Irurako Udala

Hiru udal-eraikinen erabilera eta egokitzapena zehazteko partaidetza-prozesua

2020ko abencua



(txostena plenoko expedientean gordetzen da)

SEIGARREN GAIA

EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA ARRETA-SARE PUBLIKO ANTOLATU GISA DEFENDATZEARI BURUZKOA” ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Gorka alkateak aurkeztutako Mozioa irakurtzen du:

“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatu gisa defendatzeari buruzko Mozioa. Zioa

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema “arreta-sare publiko antolatu bat da, erantzukizun publikokoa”, “titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz” osatua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioa egiteko prozesuak argitara eman du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak jasan duen pribatizazio-politika bizia. Egoera hori askotan salatu bada ere, EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren Ebaluazioak agerian utzi du honen dimentsioa. 2011. eta 2018. urteen artean, foru-aldundiek, batez ere Arabakoak eta Bizkaikoak, adinekoentzako egoitzetan eta eguneko zentroetan plaza berriak irekitzeari utzi zioten —eta, kasu batzuetan, sare publikoko plazen kopurua murriztu egin zen—, eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemara arreta eta zaintza eske hurbiltzen ziren herritarrei ‘txeke-zerbitzuak’ ematen hasi ziren. Hala, 2011n EAEko administrazioek 1.753 ‘txeke-zerbitzu’ ematen zituzten, baina 7 urte geroago, 2018an, kopuru hori 2,5 aldiz handitu zen, 4.489 ‘txeke-zerbitzu’ izateraino.

Zerbitzu publiko batek izan dezakeen pribatizazio-modurik muturrekoenak hartu duen dimentsioa erabaki politiko batean oinarritzen da: Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa ‘zerbitzu-txeke’ gisa instrumentalizatzea. Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen esparruan sortutako prestazioa, helburu argi batekin: “Arreta eta zaintzarako zerbitzu publiko edo itundu bat eskuratzea ezinezkoa denean soilik”. Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoa, ordea, EAEn adinekoen arreta pribatizatzeke erabili da, arreta-sare publikoaren estaldura murrizten zen bitartean.

Aurreko guztia EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa egiteko prozesuan azaleratu da. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema hedatzeko ibilbide-orri bat ezartzen zuen adostasun politiko zabal baten emaitza izan zen plan hori, eta horren baitan honako hau erabaki zen: “2011n Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak esleitutako plazak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren txertatutako zerbitzuetako plaza (plaza arrunt) bihurtu beharko” dira. Aldiz, 7 urtetan, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako plazen % 6,4 izatetik % 13,5 izatera pasa dira. Jakitera eman den I. Plan Estrategikoaren Ebaluazio dokumentuak arrazoizkotzat aurkeztu nahi du inguruabar hori. Gainera, pribatizazio-politika horren zilegitasuna aitortzeaz gain, kontsideratzen du ‘zerbitzu-txekeak’ kudeaketa-eredu bat gehiago direla —kudeaketa zuzenaren edo kontzertazioaren parekoa—, eta balioa ematen dio administrazioek “plaza” gehiago irekitzeko duten gaitasunari, inbertsio nabarmen txikiagoarekin. Are gehiago, ebaluazioak politika pribatizatzaile hau beste sektore batzuetara zabaltzearen alde egiten du, hala nola bazterkeriaren edo desgaitasuna duten pertsonen arretara.

Aukera honek lotura estua du adinekoen arretan eta zaintzan irabaziak lortzea zilegi dela ulertzen duen ikuspegiarekin. ‘Negozio’ horretara 210 milioi euro baino gehiago bideratu dituzte administrazioek 2011 eta 2019 bitartean. Apustu politiko horrek geriatrikoetan espezializatutako eta atzerriko inbertsio-funtsekin lotutako talde handien ‘gosea’ piztu du; izan ere, azken urteotan gora egin dute EAEko adinekoen egoitza- eta eguneko arretaren errealitatean.

Jarduera hori gure arau-esparrutik kanpo dagoela alde batera utzita, are garrantzitsuagoak dira zaintzaileek eta zainduak egunerokoan dituzten ondorio larriak, eta, zoritxarrez, ezagunak dira: zaintzaren kalitatea murriztu egiten da; oso lan-prekarietate handia dakar berekin; erabat diluitzen da

zaintzaren erantzukizun publikoa izatearen ideia oro; eta ekitaterik eza sortzen du arreta eta zaintza eskuratzean.

Covid-19ren pandemiak agerian utzi du egitura kolektiboak behar direla bizitza eta zaintzak konpontzeko. Lizuna da, hain zuzen ere, orain sakondu nahi izatea arreta eta zaintza beharrak merkantilizatzeko mekanismoetan.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren izaera publikoa aldatzeak eztabaida soziala eskatzen du, eta erakundeok gure jarrera azaldu behar dugu. Horregatik guztiagatik,

1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema arreta-sare publiko antolatua eta erantzukizun publikokoa dela adierazten du Irurako Udalak.
2. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren privatizazio-politikak legitimatzeko, bultzatzeko eta hedatzeko ahalegin oro arbuiazen du Irurako Udalak.
3. Irurako Udalak uste du, arreta eta zaintzarako eskubide subjektiboko egoera batean, Zerbitzuari Lotutako Prestazio Ekonomikoaren funtzioa mugatu egin behar dela aldi baterako prestazio edo zerbitzu bat eskuratzea bermatu ezin den egoeretara, baldin eta prestazio edo zerbitzu hori administrazio publikoek garatzen ari badira.”

Jarraian, EAJko Ana Leundak irakurtzen du:

“Euskal gizarte zerbitzuaren sistemaren alde

Euskal gizarte sistemaren alde egiten dugun honetan, ekonomia sustatzea eta gizarte politikak txanpon beraren bi alde direla baieztatzen dugu, egun dugun egoerari eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko. Binomio hau elkarrekin egotea politika publiko ororen garapenerako ainguratze-puntu bihurtzen da. Horregatik, gizarte-politikari buruz dugun ikuspegiaren funtsa eta euskal ereduaren oinarriak diren gizarte berdinzaleago, kohesionatuago eta solidarioago bat bilatzean data.

Horregatik guztiagatik:

1. EAJ/PNVk subsidiarioritasun printzipio politika publikoetan jartzearen alde egiten du. Lanketa publiko-pribatuari irekitako espazioak sortuz eta daudenak babestuz. Gure herrian oso txertatuta dagoen kudeaketa eredu horri eutsiz, izan hezkuntza sisteman Ikastola adibidez, edo eta gizarte politiketan Gureak adibidez. Eta hori guztia, pertsonen autonomia hobetuz, auto garapenerako dinamikak bultzatuz eta familiei eta bizilagunei laguntzeko dinamikak bultzatuz, gizarte – kohesioko mekanismoak berdintasun –erregimenean mantentzeko.
2. EAJ/PNVk adinekoen iraupen luzeko zainketen eredu aurrera egin behar dugula defendatzen du, pertsona bakoitzaren norbanako borondatearen errespetuan oinarritutako eredu bat, norberaren premiei arreta eskaintzean eta haren borondatea errespetatzean zentratua, etxean ez bada etxean bezala, maxima jarraitzen duen eredu bat.
3. EAJ/PNVk kalitatezko den euskal gizarte zerbitzuen alde egiten du, aintzindari diren politikak babestuz eta kudeaketa eredu defendatuz.
4. EAJ/PNV demagogia eta gehiegikeriak alde batera utziz, zentzuzko eztabaida eta aberri akordioak sustatzea eskatzen du, Covid19k ezarri dituen arreta-premia berrietara egokitzeko.

Adierazpen honen ondoren, Anak adierazi du beraien bozka kontrakoa izango dela.

Gorka alkateak hartu du hitza eta hainbat gauza adiera nahi dituela adierazi du, alde batetik, ereduan aipatzean kalitatearen inguruko denok ikusi dugu zaintzaren inguruan dabilzan pertsonak, gehienbat emakumezkoak, zein egoeratan eta zenbat greba eta zergatik egiten dituzten. Kalitatez hitz egiten denean prekarizazio handia jasaten dutelako pertsona horiek portzentaje handi batean emakumezkoak direnean.

Eta lehen ere nabarmena bazen, pandemia garai honetan sistemaren gabeziak azaleratu direla, batzuek herritarrak eta nik uste sistemaren kalitateaz hitze giten ari garenean edo beste alde batera begiratzen dugu, edo ez dugula langile horien kalitatea kontutan hartzen.

Eta alkateak gaineratzen du, tamalez eskualde honetan eredu horren adibidea daukagula, Tolosako osasun zentroa, Asuntzion hospitala, kalitatezko kolaborazio publiko/pribatua den horrekin, ikusi dugu zein arazo ekarri dituen horrek, bai langileen aldetik eta abar.

Eta urte askoren ondoren, konturatu dira, hospitale publiko baten beharra dagoela eta negozio ezin dela eduki jendearen eskutan.

Eta luzatu gaitezke gehiago ere, hondakinen gaiarekin adibidez, zer gertatzen den pribatizaziora eramaten direnean horrelako gai sakonak.

Jarraian bozketa egiten da:

BOZKETAK: Mozio hau udalbatzak onartu du, 5 boto alde (EH Bildu) eta lau boto aurka (EAJ/PNV).

ZAZPIGARREN GAIA

EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: "EUSKO JAURLARITZARI UDALENTZAKO EZ OHIKO FUNTSA BEREZI GEHIGARRIA ESKATZEKO" ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak irakurtzen du aurkeztutako Mozio hau:

EH BILDUK IRURAKO UDALEAN EUSKO JAURLARITZARI UDALENTZAKO EZ OHIKO FUNTSA BEREZI GEHIGARRIA ESKATZEKO AURKEZTEN DUEN MOZIO

COVID19aren pandemiak sortutako krisiak gogor eragin du udalen egunerokotasunean, eta batez ere, udalek 2020rako eginiko aurreikuspenetan. Udalek beraien aurreikuspenak alde batera utzi eta beste lehenetasun eta beharrezko batzuei egin behar izan diete aurre: herritarren osasun segurtasuna bermatzeko neurriak hartzea, garbitasunean zerbitzu gehigarriak ezartzea, gizarte politiken arloan sortutako beharrezko berriei erantzutea, herrietako komertzio eta zerbitzuei

laguntzea,... Alarma egoeraren ondorioz udal zerbitzu asko bertan behera uzteak ere galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Inbertsioak berrantolatzeaz gain, udalek diru sarreretan ere aldaketak jasango dituzte: batetik, tasa eta prezio publikoen bitartez lortzea aurreikusten zituzten sarrerak murriztuko dira; eta bestetik, foru finantza funtsaren bidez jaso beharko luketen diru kopurua ere asko murriztuko da.

COVID19aren krisiak behar berriak sortu ditu, eta erakunde publikoak horiei erantzutera behartuta daude. Udalak herritarrengandik gertuen dauden erakundeak izanik, momentu honetan beraien gaitasun ekonomikoa bermatzea oso garrantzitsua da.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak udalentsako ez-ohiko funtsa berezia sortzea dagokio gutxienez ondorengo udal premiei erantzuteko:

1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko
2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeko gastuei aurre egiteko
3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko
4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko
5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrian berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)

Bestetik, Europar Batasunak ere funtsa bereziak iragarri ditu datozen urteetan izango ditugun erronkei aurre egiteko eta COVID19aren izurriteak areagotutako krisi ekonomiko eta sozialaren ondorioak berreraikitzeke. Erronka horiei tokikotasunetik ere egin beharko zaie aurre, eta horretarako ezinbestekoa da udaletara funtsa horiek heltzea eta udalek (aniztasun osoa kontuan izanik dagokion ordezkartzaren bidez) funtsa horien lanketan zuzenean parte hartzea, Nafarroako Gobernuak ahalbideratu duen bezala.

Irurako udalbatzak ondokoa adosten du:

1. EUSKO JAURLARITZARI EAEko udalentsako ez -ohiko diru funtsa berezi bat sortzea eskatzen dio, udalek COVID19aren krisiaren ondorioz jasan behar dituzten gastu hauei aurre egiteko:

1. Udal zerbitzuetan izaniko galerei aurre egiteko
2. Udalek zerbitzuak eta langile postuak telelanera egokitzeko gastuei aurre egiteko
3. Herritarren larrialdi egoerei aurre egiteko
4. Arrakala informatikoa, haurren elikadura zein udal eskumenekoak ez diren beste gai batzuetan udalek egindako inbertsioengatik sortutako gastuak ordaintzeko
5. Hezkuntza eta osasun arloan udalei sortuko zaizkien beharrian berriei aurre egiteko (adibidez eraikinak egokitzea eta garbitasun neurrien zorrozteak dakartzan kostu gehigarriak)

2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, Europatik datozen funtsen %30 udaletara bideratua izan dadin bermatu dezala.

3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, Europatik datozen funtsen banaketa zein lanketa garatuko den guneetan EAĒko Udalen aniztasun osoa ordezkatua izango den ordezkaritza bidez parte hartze zuzena bermatu dezala.

4. Ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko zaio.

Jarraian EAJ/PNVk Ana zinegotziak beraien testuaren irakurketa egiten du:

“Mozio honi ezezkoa emango diogu, zeren eta aurten eta datorren urtean udalek ahalko dute zorpetu. Hori da, Madriden gure taldeak lortu zuena euskal erakunde guztietarako. Hasieran uste zen rekaudazioa %20ra jaitsiko zela, kolpe haundia erakunde guztietarako. Udal gehienek aurrekontua reajustatu zuten zulo horri aurre egiteko eta krisiak sortuko zituen gastu gehigarriari aurre egiteko, inbertsioa geldituz eta esentzialak ez diren gastuak kenduz, eta horrela lortzen ez zena aurreko urteetako remanenteekin finantziatu. Arazoa zen ez genekielako hau nola joan zen, zenbat olatu etorriko ziren, eta lehenengo olatuari aipatu dudako moduan aurre egin zitzaien eta panorama ez zen ona. Kontua da udaletxe gehienek zorpetze txikia dutela eta zorpetzea bazutela, baina Madridek zorpetzea debekatua zuela, azkenean zer gertatu da? Madriden EAJk lortu duela euskal erakundeak zorpetzeko aukera aurten eta datorren urtean al dira zorpetu ia, aurreikusi zen jaxieraren kantitateetan, beraz remanenteak al dira gorde erabili gabe.

Eta gainera rekaudazioaren jaxiera ez da izango, %20 izan ordez %10 izango da gutxi gora behera.

Konklusioa Gipuzkoako udalen egoera ekonomiko-finantzieroa Jaurlaritzarena baina hobea dela. Ez da ahaztu behar, euskal erakundeen finantziario sistemaren funtsa ardura konpartitua dela, eta kontuan izan behar da, krisi honetan, gastu handiena Osasun zerbitzuan, hezkuntza eta sistema produktiboan eman dela, zaharren zaintzaz aparte. Eta gastu horiek Jaurlaritzak eta Diputazioek hartu dituztela bere gain.

Planteatzen dena logika politikatik kanpo dago eta erabat insolidarioa. Ikusita udalak dituen gerakinak eta zorpetzeko margena.

Bukatzeko honekin, lekuz kanpo dago Udalak Jaurlaritzarekin adostu gabe bereak diren eskumenetan gastuak bere gain hartu, hori dio mozioak, eta gero gastu horiek ordaintzeko dirua eskatu jaurlaritzari eta, bi Europako fondoengatik inguruan esan garrantzitsuena ez dela nork gestionatuko dituen fondo horiek, baizik eta zertan. Eta hori dela Eudelen eztabaidatu behar dena eta ez herriz herri, mozio politiko da EAJri egurra emateko, besterik ez. Guk ezezkoa emango diogu.

Alkateak dio, aipatu nahi du, esandakoaren arabera, kuriozkoa dela zorpetzeko aukera horri hainbesteko bonbo ematea, non pandemia sartu ginenean gutxiago gastatu behar genuela esaten zen eta, aldiz, orain, zorpetzea joan behar garela, alde batetik.

Eta beste aldetik, zentzua ez omen dauka udalak bere gain hartu dituen gastu batzuk gero Jaurlaritzari eskatzea, nik uste zentzurik ez duena, udalak hatu behar izatea

bere eskumenak ez direnak, herritarrei ahalik eta azkarren udalak behar izatea eta ez Jaurlaritza, nonbait, beste gauza garrantzitsuagoetan zegoelako.

Jarraian bozketa egiten da:

BOZKETAK: Mozio hau udalbatzak onartu du, 5 boto alde (EH Bildu) eta lau boto aurka (EAJ/PNV).

ZORTZIGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOTENAK JAKINARAZTEA.

Ez da aurkeztu ezer.

BEDERATZIGARREN GAIA

GALDE -ERREGUAK.

EAJ/PNVk faktura baten argibideak eskatzen ditu, etxebizitza beharraren azterketaren ingurukoa dela, baina batzordean ez dela hitz egin eta...

Alkateak azaltzen dio, batzordean azalduta dagoela eta egin dena da GISLAN enpresak etxebizitza politikaren inguruko herriko egoera aztertu duela adierazi du, etxebizitza hutsen kopurua, demografia eta etorkizuneko 15 urtera begirako ikuspuntu bat ematen digu. Txosten hori aurkeztu dute eta hurrengo pausua herritarren aurrean azaldu eta beste bi lan egin beharko ditu.

Alde batetik, gazteei begira, jakitea etxebizitza eskuratzeko dagoen eskaera eta beste aldetik, identifikatutako etxebizitza hutsen egoera zein den, zergatik dauden hutsik...

Anak adierazten du txostena ikustea gustatuko litzaiekeela.

Idazkariak txostena pasako diola adierazi du.

Bukatzeko Ana EAJ/PNVko zinegotziak Miguel Arrizabalaga Idazkari-Kontuhartzaileari hitz batzuk eskaini dizkio: "Idazkaria jubilatzen zaigu hainbeste urte lanean pasa ondoren, gaur izango dugu azkeneko plenoa, hori dela eta, EAJ/PNVko zinegotzian izenean eskerrak eman nahi dizkizut Mikel zure lana eta laguntzagatik. Disfrutatu zure bizitzako ibilbide berri honetan eta ondo izan!

Urte bukaera ona izan dezagun eta datorrena hobea izan dadila denontzat.

Urte berri on denoi!

Idazkariak ere esker hitz batzuk esanez bukatzen da pleno.

Ez da izan.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:00an eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA